



BIZKAIKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA  
COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE BIZKAIA

# JARDUEREN MEMORIA

## 2016

2016. urtea Gobernu Batzordeko Hauteskundeetara aurkezturiko bi hautagaitzen hauteskunde-kanpainarekin hasi genuen. Hauteskundeak



urtarrilaren 19an egin genituen eta 108 elkargokidek (emandako botoak) parte hartu zuten. Gobernu Batzorde berria urtarrilaren 28an eratu zen.

## **GOBERNU BATZORDEAK GAUZATURIKO JARDUERAK**

---

Gobernu Batzordearen 2016. urteko jardueren xedea izan da Elkargoko gaiak kudeatzea. Hona hemen Gobernu Batzordeak gauzaturiko jarduera batzuk:

- Gobernu Batzordearen bilera Euskal Herriko Unibertsitateko CIVERSITY ikerketa-taldeko ordezkariarekin. Amaia Izaola. 2016ko martxoak 17.
- Gizarte-laneko estatuko sarietara bertaratzea (Santiago de Compostela 2016/03/11).
- Gizarte-eskubideen aldeko manifestazioan parte hartzea. Gizarte Lanaren Munduko Eguna dela eta Kontseilu Nagusiak antolaturiko estatu-ekintza bat zen (Santiago de Compostela 2016/03/12).
- Gizarte Larrialdien Elkargoarteko Jardunaldian parte hartzea, Gizarte Laneko Kontseilu Nagusiaren egoitzan, Madrilan. 2016ko martxoak 31. Jardunaldiaren helburua zen larrialdi eta ezbehar handietarako elkargokide boluntarioek esperientziak trukatzeko eta elkarrizketarako gune bat sortzea.
- Bilera BasquePRO Elkargoak sarearen egoitzan, Ekonomialarien Elkargo Ofizialaren ekimenez, ekintzailatza babesteko elkargo-plataforma bat sortzeko. Bilbo, 2016ko martxoak 18.
- Bilera Fisioterapeuta, Logopeda eta Psikologoaren Elkargo Profesionalekin, Euskal Autonomia Erkidegoko arreta goiztiarreko esku-hartze integralari buruzko Dekretuaz hitz egiteko. Bilbo, 2016ko maiatzak 19.
- Elkargoa Deustuko Unibertsitateko Gizarte Laneko 4. mailako ikasleei aurkeztea. Bilbo, 2016ko maiatzak 23.
- Gobernu Batzordearen bilera gizarte-kolektiboen ordezkariarekin, etxebizitzari buruzko araudi berriaz eta araudi horren ondorioez hitz egiteko. Bilbo, 2016ko maiatzak 25.
- URRATS “Zaintzen jarraitzea” jardunaldiak Bilbon, 2016ko ekainaren 3an.
- BasquePRO Elkargoak, aurkezpena UOC Unibertsitatean (Universitat Oberta de Catalunya). Bilbo, 2016ko ekainak 9.
- Lan-saioa Batzar Nagusietan, Gizarte Zerbitzuen Legeari eta Bizkaian lege hori betetzeari buruzkoa. Bilbo, 2016ko ekainak 29.



- Elkargo profesionalen kudeaketa eraginkorrari buruzko hitzaldia, Valentziako Ekonomialarien Elkargoko zuzendari kudeatzaile ohi Víctor Gómez Senenten eskutik. BasquePROren egoitza, 2016ko urriak 25.
- Anesvad sariak (urriak 27).
- AVIFES elkartearen 30. urteurrenaren amaiera-ekitaldia. Bilbo, 2016ko azaroak 17.
- Euskal Kazetaritza Sariak 2016 (azaroak 7).
- Bilera Hezitzaileen Elkargoarekin eta ELA, LAB eta ESK sindikatuekin, zerbitzu eta prestazioen mapa eta zorroari buruzkoa.
- Informazio-batzarra: "Gizarte-zerbitzuen maparen eremua. Hirugarren sektorea arriskuan al dago?". Bilbo, 2016ko abenduak 14.
- Lehendakariaren harrera euskal gizartearen ordezkariari. Gasteiz, 2016ko abenduak 22.

Hona hemen **LANBIDEA GIZARTEAN EZAGUTZERA EMATEKO** gauzaturiko jarduera nagusiak:

- **GIZARTE LANAREN 2016KO NAZIOARTEKO EGUNA OSPATZEA.**

**Gizarte-eskubideen aldeko ibilaldian** parte hartzea, Santiago bidearen azken etapan, estatuko gizarte-laneko gainerako elkargo profesionalekin, gizarte-laneko nazioarteko eguna ospatzeko; ibilaldia Kontseilu Nagusiak antolatu zuen (Santiago de Compostela, 2016/03/12).

**Mahai-ingurua eta erretiroa hartu dutenen omenaldia, Gizarte Lanaren 2016ko Munduko Eguna ospatzeko.**

Bilbon, 2016ko martxoaren 15ean, Sendagileen Elkargoaren egoitzan.

**Mahai-inguru interaktiboa: "Gizarte-lanaren beste abantaila batzuk"**. GLak hezkuntzan, GLak gizarte-partaidetzan, GLak osasunean, GLak espetxeetan, GLak justizian (*Ángel Acebo, Marta Moreno Fabiola Moreno, Raquel Cano, Carolina Hernainz eta Sandra Maira*).

**Erretiroa hartu dutenen omenaldia.**

- Partaideak: 81.

Gure elkargoko lehen elkargokideari gizarte-lanaren nazioarteko eguna zela eta egindako elkarrizketa sustatzea. Elkarrizketa **DEIA egunkarian argitaratu zuten 2016ko martxoaren 29an**, titulu eta azpititulu hauekin:

*Amaya Ituarte: "Funtsezkoena da pertsonekin lan egitea, ez arazoekin"*

*Amaya Ituarte 41 urtean aritu da gizarte-langile gisa lanean eta erretiroa hartu berri du. Argi du giza harremanetan oinarrituriko lanbidearen erronkak zeintzuk diren.*

- **ELKARGOAREN INTERNETEKO PRESENTZIA SUSTATZEA**



□ **Elkargoaren web-orria**

Elkargoaren web-orria Elkargoaren jardueren berri emateko erabiltzea, hilerro batez beste 1-3 berri argitaratuz.

□ **Elkargoaren orria FACEBOOKen**

2016ko otsailaren 2an, Elkargoaren Facebook-eko orrian egunero berri bat jartzen hasi ginen. Era horretan, jarraitzaile-kopurua pixkana handitzea lortu dugu. Izan ere, 2016ko otsailean ez genuen jarraitzailearik eta 2017ko otsailean 387 lagun gustatzen zaie gure orria. Alde horretatik, 2017ko apirilaren 3an 416 jarraitzaile genituen.

Facebook-en gai hauei buruzko berriak argitaratzen ditugu:

Elkargoaren jarduera:

Bizkaiko GLEOK deitzen/antolatzen dituen jardueren berri aurrez ematea eta, amaitu ondoren, zer gertatu den azaltzea.

Elkargoen Kontseilu Nagusiaren jarduera eta ekimenak ezagutzera ematea eta Kontseiluak egiten dituen jardueren berri ematea, baldin eta GLEOK parte hartzen badu.

Eusko Jaurlaritzaren (Irekia) eta Bizkaiko Foru Aldundiaren gai hauei buruzko berriak zabaltzea: gizarte-zerbitzuen sistema kudeatzeko neurriak, legegintza-ekinbideak, sustapen-bideoak eta abar.

Gizarte-lanari buruzko iritzi-artikuluak eta blogak, gai hauen ingurukoak: gizarte-laneko esku-hartze profesionala, gizarte-politikak, gizarte-zerbitzuak, gizarte-lana hezkuntza, osasunean, espetxeetan...

Nazioarteko egunak (autismoa, emakume langileak, genero-indarkeriaren kontrakoa, gizarte-eskubideak, buruko osasuna, HIESA eta abar).

Elkartasuna eta dolumina atentatuen, genero-indarkeriaren eta ezbeharren biktimei.



Beste erakunde batzuk antolatzen dituzten eta gizarte-politiketan eragina duten prestakuntza- eta aldarrikapen-ekintzen berri ematea.

Ikusi Elkargoaren Facebook-eko orriko jarraitzaileen jatorriari buruzko eranskina.

2016an, Gobernu Batzordea astean behin bildu da, besteak beste gai hauek lantzeko:

1. Kontseiluaren batzar orokorrak.
2. Elikagaien bankuaren eskaria: erretiroa hartutako profesionalak.
3. 13/2016 Dekretua, otsailaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko arreta goiztiarreko esku-hartze integralari buruzkoa. Fisioterapeuta, Psikologo eta Logopeden Elkargoen esparru-dokumentua egiteko proposamena.
4. Erabiltzaile batek profesional bati ustezko praxi okerragatik jarritako salaketa.
5. Prestakuntzari buruzko lankidetzaren hitzarmena Gizagune Fundazioarekin.
6. Lankidetzaren hitzarmena Bergarako UNEDekin.
7. Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzuak eskaturiko txostena, gizarte-langileen irudi profesionalari eta egoitzetan gizarte- eta kultura-animazioko jarduerak antolatzeko duen eskumenari buruzkoa.
8. Batzordearen aholku- eta laguntza-taldeari egindako txosten-eskaria. Txostena Bizkaiko Gizarte Zerbitzuen Maparen eta Osakidetzako prestazio- eta zerbitzu-zorroari buruzko 185/2015 Dekretuaren balorazioa egiteko da. Mapa EUDELe eta BFAk aurkeztu dute, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GIZARTE ZERBITZUEN 2016-2019 PLAN ESTRATEGIKOKO EAeko mapari buruzko 4. atalari jarraikiz.

## **BIZKAIKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALAREN ATXIKIMENDUAK**

Errefuxiatuen aldeko agiriari atxikitzea eta Bilboko manifestazioan parte hartzea (2016ko otsaila).

Gaixotasun arraroen inguruko agiria (2016ko otsaila).



**BIZKAIKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA**  
**COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE BIZKAIA**

CEAR. Europar Batasunak eta Turkiak errefuxiatuen gainean sinatutako hitzarmenaren kontrako agiriari atxikitzea (2016ko martxoa).

Amnistia Internazionalaren agiriari atxikitzea.

## **ELKARGOAREN ORDEZKARITZA**

---

Bizkaiko Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialak erakunde hauetan ditu ordezkariak:

**Gizarte Langileen Nazioarteko Federazioa.**

**Gizarte Laneko Kontseilu Nagusia.** Ana Belén Villa /Miren San Martín

2016ko martxoaren 12ko eta abenduaren 17ko Ohiko Batzar Orokorrak landutako gaiak:

- Lan-programak, aurrekontuak eta balantze ekonomikoak.
- GLNFren lehendakaritza Europan.
- Servicios Sociales y Política Social aldizkaria.
- Gizarte Laneko Kontseilu Nagusiaren Deontologia Batzordearen Araudia.
- Gizarte-lanaren estatuko saria eta nazioarteko eguna.
- Gizarte Lanaren Estatuko 13. Biltzarra eta Gizarte Lanaren Biltzar Iberoamerikarra.

**Euskal Herriko Elkargoartekoa**, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Gizarte Langintzaren Elkargoek osatua. Bizkaiko ordezkariak: Andikona Irazabal eta Miren San Martín.

Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko Gizarte Langintzaren Elkargoek bilera bat egin dute 2016ko maiatzaren 6an, gai hauek jorratzeko:

- BERRITZEGUNEtan gizarte-langileen irudi profesionalaren alde egitea (hezkuntza).
- Elkargo arteko egitura.
- ALOKABIDEren kontrako helegitea.
- FEAD/ELIKAGAIEN BANAKETA. Bizkaiko Elkargoko lan-taldeak igorritako testua.
- EAeko Gizarte Zerbitzuen 2016-2019 Plan Estrategikoa (lurralde historiko bakoitzeko mapa egitea).



### **Bilboko Udaleko Gizarte Zerbitzuen Udal Kontseiluaren osoko bilera.**

Ana Belén Villa eta Angela Fernández.

#### **Bilboko Udalaren Etxegabeen inguruko Lan Batzordea.**

Itziar Ibarra Fernández eta Dina Llamazares.

Bilera 2016ko ekainaren 24an egin zen, gai hauek lantzeko:

- Batzordearen aurkezpena eta funtzionamendu-oinarriak.
- Gizarte Ekintzako Sailaren 2015eko Memoria.
- Zorroaren gaineko dekretuaren eragina.
- Etxegabetasunaren kontra borrokatzeko estrategia.

### **Portugaleteko Udalaren Gizarte Ongizateko Udal Kontseilua.**

Elkargoaren ordezkaria: Arantza Laka.

Bilera 2016ko abenduaren 16an egin zen, gai hauek lantzeko:

- Gizarte Zerbitzuen aurrekontuak.
- Adinduen Batzorde Sektorialaren osaera eta gauzaturiko jarduerak.
- Emakumeen Batzorde Sektorialaren osaera eta gauzaturiko jarduerak.
- Gizarte Zerbitzuen Zorroko Lehen Mailako Arretako Zerbitzuen garapena.

## **BIZKAIA, ARABA ETA GIPIZKOAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALEN ORDEZKARITZA BATERATUA**

---

**Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua.** Kidea: Gotzon Villaño Murga (Arabako GLEO)

Bilerak 2016ko ekainaren 7an eta urriaren 18an egin ziren, gai hauek lantzeko:

- Euskal Autonomia Erkidegoko zentro soziosanitarioetako farmazia-zerbitzuei eta sendagai-biltegiei buruzko Dekretua.
- Euskadiko Gizarte Zerbitzuen egoerari buruzko txostena.
- Etxegabeentzako estrategia.
- Goi-ikuskaritzako Jarduera Plana



**Gizarteratzeko Euskal Kontseilua.** Kidea: Ernesto Notario Ajuria (Bizkaiko GLEO).

Bilera 2016ko ekainaren 17an egin zen, gai monografiko hau lantzeko: Gizarte Larrialdietako Laguntzen Dekretua aldatzeko dekretu-proiektuaren gaineko nahitaezko txostena egitea.

**Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektoriala.** Kidea: Virginia Peña (Gipuzkoako GLEO).

Bilerak 2016ko ekainaren 23an eta azaroaren 16an egin ziren, gai hauek lantzeko:

- Familia Politika eta Gizarte Garapeneko Zuzendaritzako Haur eta Nerabeen Saileko proiektuak.
- Hurren eta Nerabeen Behatokia: adierazleen sistema eguneratzea.
- BALORA tresna eguneratzea.

**Euskal Autonomia Erkidegoko ijito herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseilua.** Kidea: Gotzon Villaño Murga (Arabako GLEO).

**Adinduen Batzorde Iraunkor Sektoriala.** Kidea: Olatz Etxabe (Gipuzkoako GLEO).

**Adikzioen Aholku Batzordea.** Kidea: Iñigo Cortázar Estívaliz (Bizkaiko GLEO).

**Familia Bitartekaritzako Aholku Batzordea.** Kidea: Agate Barua (Bizkaiko GLEO).

**Familiaren Euskal Kontseiluaren osoko bilkura.** Kidea: Juan Antonio Viña (Bizkaiko GLEO).

## **ELKARGOAREN EGOERA**

---

Gaur egun Elkargoko kide diren profesionalak: 815

2016an egindako altak: 59

Eskatutako bajak: 23

Gaur egun 22 elkargokide erretiroa hartuta daude.





## **2016KO LAN-TALDEAK**

---

1. Bitartekaritza Batzordea.
2. Gizarte Bazterkeriako lan-taldea.
3. Zerbitzu eta Prestazioen Maparen eta Zorroaren taldea.  
Kontseilu Nagusiko Gizarte Zerbitzuen Ereduaren taldea.
4. Ikuskaritzako taldea.
5. Bizkaiko Foru Aldundirako oposizioak prestatzeko taldea.

## **AHOLKULARITZA JURIDIKOA**

---

### Elkargoaren aholkularitza

Elkargokide profesionalek 2016an egindako kontsultak: 10

### Kontseilu Nagusiaren aholkularitza

Elkargoak gai hauen inguruan egin ditu kontsultak, besteak beste: gizarte-laneko lanpostu-deialdien oinarriak, Alokabideren kontra jarritako helegitea, Elkargoaren zehapen-protokoloa eta gizarte-txostenak egitea.

## **ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA**

---

Elkargoak urtero berritzen du, automatikoki, Bizkaiko elkargokide guztien erantzukizun zibileko aseguruia.

Poliza aseguratuari urtero posta arruntez bidaltzen saiatuko gara.

## **SERVICIOS SOCIALES Y POLÍTICA SOCIAL ALDIZKARIA**

---

Gizarte Laneko Kontseilu Nagusiak argitaratzen du eta Elkargoak, 2016an, eutsi egin dio elkargokide guztien urteko harpidetzari.



## PRESTAKUNTZA-JARDUERAK

---

**Familia-bitartekaritzako eta gatazka-konponketako unibertsitate-aditua (4. edizioa, UDIMAko BITARTEKARITZA ESKOLA)**

Data: 2016ko iraila.

Partaideak: 18

**Kasu praktikoen ikastaroa**

Irakaslea: Laura Caramés Gutierrez.

Eguna: 2016ko urriak 15.

Partaideak: 19.

**Zuzenbide Publikoari buruzko ikastaroa**

Irakasleak: Nerea Barañano, Octavio Fernández eta Jesús López.

Data: 2016ko maiatzaren 16tik ekainaren 27ra.

Partaideak: 25.

**URRATS “Zaintzen jarraitzea” 7. Jardunaldia.**

Elkargokide hauek parte hartu dute: Maite Martín, Isabel Román eta Belén Villa.

Data: 2016ko ekainak 3.

**Mindfulness eta errukia eguneroko bizitzan**

Irakaslea: Maite Rodrigo Vicente.

Data: 2016ko maiatzaren 16tik ekainaren 30era.

Bertan behera utzi zen, ez zuelako jende nahikoak izena eman.

**Gizarte-ikuskapenari buruzko ikastaroa**

Irakaslea: Marta Simón Gil.

Data: 2016ko martxoaren 18tik apirilaren 16ra.

Partaideak: 15.

**Gizarte-lanaren munduko eguna/Erretiroa hartu dutenen omenaldia.**

Data: 2016ko martxoak 15

Mahai-inguru interaktiboa: Angel Acebo, Marta Moreno, Fabiola Moreno, Raquel Cano, Carolina Hernainz eta Sandra Maira.

Partaideak: 81.

**Informazio-saioa: Gizarte-lana eta boluntarioak koordinatzeko programa**

Hizlariak: Miren Antxone Viña eta Maitane Fernández Armada.

Data: 2016ko azaroak 22.

Partaideak: 5.

**Informazio-saioa: Zakurrek lagundutako esku-hartzeak**

Hizlariak: Nagore Fernández de Ibarra eta Mainer Petralanda Jordá.



BIZKAIKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA  
COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE BIZKAIA

Data: 2016ko urriak 25.

Partaideak: 11.

**Informazio-saioa: Entzuteko desgaitasuna duten pertsonen eta pertsona itsu-gorren errealitatearen inguruko sentsibilizazioa. Nola komunikatzen gara?**

Hizlaria: Maria Ángeles Cantalapiedra Lira eta Álvaro Ortega Abajas.

Data: 2016ko irailak 27.

Partaideak: 9.

**Informazio-saioa: Gizarte-laneko erantzukizun profesionala**

Hizlaria: Gemma Escapa García.

Data: 2016ko uztailak 6.

Partaideak: 32.

## **2016AN ELKARGOAN JASOTAKO LAN-ESKAITZAK**

---

Elkargoak, erakunde enplegu-emaeleek hala eskatuta, lan-eskaintza hauek kudeatu ditu:

Integra

Gizarte-langilea  
2016/01/04

Valoriza Servicios a la Dependencia  
Kordinazioko arduraduna  
2016/02/24

Emaús Gizarte Fundazioa  
Gizarte-langilea  
2016/03/03

FEDER Euskal Herria  
Gizarte-langilea  
2016/03/07

Begoñako Ama egoitza  
Gizarte-langilea  
2016/04/25

Alboko Esklerosi Amiotrofikoaren Euskal Herriko Elkarteen Federazioa  
Gizarte-langilea  
2016/05/16

Lagunduz taldea  
Gizarte-langilea  
2016/05/19



**BIZKAIKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA**  
**COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE BIZKAIA**

Maruri-Jatabeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea  
Gizarte-langilea  
2016/05/30

Gestión de Ayuda Domiciliaria  
Gizarte-langilea  
2016/05/31

Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkarte (AECC)  
Gizarte-langilea  
2016/07/22

Integra Centro Especial de Empleo  
Gizarte-langilea  
2017/08/16

HARTFORD. Intervención Social, Cultural y Educativa  
Boluntarioen dinamizatzailea  
2017/08/04

Ausartzen. Aisia eta aisialdia.  
Gizarte-langilea  
2017/09/06

CEAR. Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordea  
Gizarte-teknikaria  
2016/09/15

Galdakaoko Udala  
Gizarte-langilea  
2017/09/30

A tiempo. Servicios y Prevención S.L.  
Bi gizarte-langile  
2016/10/04

Foro Técnico de Formación  
Irakaskuntza. Gizarte-langilea  
2016/10/26

Servicios Sociales Integrados taldea  
Etxeko Laguntza Zerbitzuaren koordinatzailea/gizarte-langilea  
2016/11/17

SORTARAZI. Giza Garapenerako Elkarte Klaretarra  
Gizarte-langilea  
2016/12/06



**BIZKAIKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA**  
**COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE BIZKAIA**

Eranskina

Elkargoaren Facebook-eko orriaren jarraitzaileak

<i>Herrialdea</i>	<i>Jarraitzaileak</i>
Espainia	372
Mexiko	8
Argentina	7
Peru	4
Ameriketako Estatu Batuak	3
Ekuador	3
Txile	2
Kolonia	2
Dominikar Errepublika	2
El Salvador	2
Andorra	1
Portugal	1
Guatemala	1
Panama	1
Italia	1
Irlanda	1
Erresuma Batua	1
Bolivia	1
Venezuela	1

<i>Hiria</i>	<i>Jarraitzaileak</i>
Bilbo, EAE, Espainia	53
Madril, Madrilgo erkidegoa, Espainia	24
Tenerife, Kanariak, Espainia	15
Portugalete, EAE, Espainia	10
Barakaldo, EAE, Espainia	9
Donostia, EAE, Espainia	9
Gasteiz, EAE, Espainia	8
Algorta, EAE, Espainia	7
Gijón, Asturias, Espainia	6
Malaga, Andaluzia, Espainia	6
Zaragoza, Aragoi, Espainia	6
Las Palmas, Kanariak, Espainia	6
Eibar, EAE, Espainia	5
Bartzelona, Katalunia, Espainia	5
Durango (Bizkaia), EAE, Espainia	4
Valentzia, Valentziako Erkidegoa, Espainia	4
Almería, Andaluzia, Espainia	4
Granada, Andaluzia, Espainia	4
Ourense, Galizia, Espainia	4
Basauri, EAE, Espainia	3
Palentzia, Gaztela eta Leon, Espainia	3
Iruña, Nafarroa, Espainia	3
Gernika-Lumo, EAE, Espainia	3
Lima, Peruko departamendua, Peru	3
Galdakao, EAE, Espainia	3
Santander, Kantabria, Espainia	3
Avilés, Asturias, Espainia	3
Santa Cruz, Kanariak, Espainia	3
Toledo, Gaztela-Mantxa, Espainia	2
Sodupe, EAE	2
Sevilla, Andaluzia, Espainia	2
Muskiz, EAE	2



**BIZKAIKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA**  
**COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE BIZKAIA**

<i>Hiria</i>	<i>Jarraitzaileak</i>
Laudio, EAE	2
Ermua, EAE	2
Astraburua, EAE	2
Amorebieta, EAE	2
Extremadura, Sánchez Ramírez (probintzia), Dominikar Errepublika	2
Asturias, Espainia	2
Oviedo, Asturias, Espainia	2
Erandio, EAE, Espainia	2
Valladolid, Gaztela eta Leon, Espainia	2
Mataró, Katalunia, Espainia	2
Berriz, EAE	2
Ondarroa, EAE	2
Murtzia, Murtziako erkidegoa, Espainia	2